

CORPUS CHRISTI EGUNA – KARITATEAREN EGUNA

(2018ko ekainaren 3a)

Gizarte Pastoraltzako Gotzain Batzordearen Mezua

KONPROMISO SOZIALA ETA KARITATE ERALDATZAILEA

Zure konpromisoak mundua hobetzen du

Jesukristok gu gaizkitik askatzeko eta ilunpetik argira –heriotzatik bizitzara– igaroarazteko eman zuen bere bizia. Bada, Jesusen baldintzarik gabeko maitasun horren barne-kontenplazioak eraldatuta, Caritasen kanpaina instituzionalaren mezua gogorarazi nahi diegu kristau guzti-guztiei, bai eta entzun nahi diguten borondate oneko gizon-emakumeei ere: “Zure konpromisoak mundua hobetzen du”.

Badakigu gaur egun ez dagoela modan konpromisoaz hitz egitea. Are gehiago: birtualaren, berehalakoaren eta iragankorraren kultura honetan, besteez arduratzea antigoaleko gauzatat hartzen da. Hala ere, mundua eraldatzeko eta ahulenen alde egiteko konpromisoa gure duintasunaren adierazle zintzoena da, bai eta gure ardurarena eta elkartasunarena ere.

Kristautentzat karitatezko konpromiso sozialarekin, besteekin izatearekin eta besteentzako bizitzearekin oso lotuta dago Kristorekin bat egitea. Hirutasunean fedea izatetik sortzen den konpromiso bat da. Kristauok Aita den Jainko batean sinesten dugu, bere seme-alabak baldintzarik gabe maitatzeaz gain, guztiei duintasun berbera ematen dien Aita batean; bekatutik eta eguneroko morrontzetatik askatzeko eta gu heriotzatik bizitzara igaroarazteko, bizia eman zuen Jainko Seme batean ere sinesten dugu; eta gizaki bakoitzaren baitan dagoen maitasunari adorea ematen dion Jainko Espirituan ere bai, guztiokin bat eginda biziartzten baikaitu, elkartasun- eta senidetasun-sareak Jesusen estilora ehunduz. Izan ere, Jesus ez zen “etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, bere bizia guztien alde ordainsaritzat ematera” (Mt 20, 28). Kristorekin bat egite horretan oinarrituta, lau konpromiso hauek proposatzen dizkizuegu:

1. *Sufritzen dutenei begiak eta bihotza irekita bizitzea:* Begiak eta bihotza ireki behar dizkiogu gure ondoan dagoen samin, pobrezia, marjinazio eta bazterkeria guztiari. Gure artean bizi den kultura mota batek baztertu, ezkutatu, isildu eta ezikusia egiten die sufrimenduaren eta pobrezia-aurpegiei. Hala ere, guk ezin diegu ezikusia egin. Frantzisko aita santuak dioen bezala, "pobreziak erronka bat jartzen digu aurrean egunero, eta aurpegi ugariarekin; hain zuzen, saminak, marjinazioak eta zapalketak (...), pertsonen salerosketak eta esklabotasunak, erbesteratzeak, miseriak eta behartutako migrazioak markatutako aurpegiekin". Erronka hori “krudela” bihurtzen da, konturatu egiten baikara egoera horiek, zoriaren ondorio izan beharrean, injustizia sozialaren, miseria moralaren, gutxi batzuen diru-gosearen eta askoren axolagabetasun orokortuaren ondorio direla.

2. *Bihotz errukiorra lantzea:* Arazoak ugaritzeak eta konplexuago egiteak gure arreta ahultzea eta gure bihotza gogortzea ekar dezake. Axolagabetasunaren eta indibidualismoaren

tentazioari aurre egiteko, kristauok gupida eta errukia landu behar ditugu, oinazearen aurkako protesta isilaren antzekoak baitira, elkartasunerako ezinbesteko urratsa izateaz gain.

3. *Korrontearen kontra joateko gai izatea:* Konpromisorako gonbidapen hori ez da azalekoa edo periferikoa. Alderdi oso sakonak jartzen ditu jokoan, hala nola askatasuna bera. Interes pertsonaletan eta iragankorretan tinko daudenen korronteari jarrai diezaiokegu bizitzan, edo konprometitutako pertsonak bezala bizi, Jesusen antzera, korrontearen aurka jokatuz eta interes ekonomikoak gizakien duintasunaren eta guztion ongizatearen gainetik sekula egon ez daitezen baliabideak jarriz.

4. *Subjektu komunitarioa eta eraldatzailea izatea:* Kristauok gizartearen eta munduaren aldaketaren eragile izateko deia jaso dugu, baina horretarako ezinbestekoa da konpromiso komunitarioa, bai eta konpromiso hori besteen zerbitzura jartzeko bokazio gisa bizi izatea ere. Horrek esan nahi du eskura ditugun baliabide guztiak jarri behar ditugula, Jainkoaren maitasunaren seinale eta sakramentu izango diren komunitateak sortzeko. Komunitate horiek partekatzeko gai izan behar dute, bai eta anai-arreben zerbitzura ondasun materialak, denbora, lana, prestutasuna eta bizitza bera jartzeko ere. Hau da, begiradaren, hitzaren eta ekintzaren erdigunean pertsona jartzeko gai diren komunitateak behar dira.

Karitatea eraldatzailea da

Espainiako gotzainok karitatezko jardueraren alderdi eraldatzailea ere nabarmendu dugu eta honako hau adierazi dugu: “gure karitatea ezin da leungarria soilik izan, prebentiboa eta sendatzailea ere izan behar du, eta proposatu egin behar du. Jaunaren ahotsak dei egiten digu gure bizitza eta ekintza guztiak Jainkoaren erreinuko errealitate eraldatzailearen arabera bideratzera”. Horrek bidegabekeria agerian jartzea esan nahi du, salaketa profetikoaren bidez; eta behar duenari laguntza ematea eta, gizarte-eraldaketaren bitartez, egitura bidezkoak antolatzeke lan egitea ere bai.

Eska diezaiogun Espirituari mistika sozial eraldatzailea

Eska diezaiogun gaur Espiritu Santuari Eukaristiaren mistika sozial eta eraldatzaileak mundua eraldatzen lagundu diezagula, eta karitate eraldatzailea sustatzen ere lagundu diezagula gure karitate- eta gizarte-erakunde guztietan. Badakigu ez dela zeregin erraza, baina karitatea ez dago gauzak dauden bezala uzteko, eta ez datza gizarte-arloan beti egin den horixe egitean. Karitateak bidegabekeria salatzen du, eta gizakiaren garapen osoa sustatzen du: gure irizpideak eta jarrerak, bai eta gure pentsaera eta jokabideak ere, onbidera ekartzera bultzatzen gaitu, Jaunari pertsonekin batera egoten nahiz pobrezia, bazterkeria eta desberdintasuna sortzen duten egiturak eraldatzen laguntzeko.